



BARREN

TOKIKOM

21 urtez sozialisten ordezkari

Fernando Suarez

Aita Agirre kulturgunean egongo gara

Azaroaren 9tik 19ra, astelehenetik ostiralera

- Oraindik izena eman ez duzuenok IZENA EMATEKO aukera izan dezazuen.

- Ahobizi eta Belarriprest TXAPAK JASOTZEKO.



- Entitateetan sortu diren ariguneetako IKURRAK JASOTZEKO.

- MUSUKOAK eta BANDERATXOAK erosteko, nahi duzuenok (5€).



ORDUTEGIA:

Goizetan: 9:00-14:00 (3. solairuan).

Arratsalde: 18:00-20:00 (sarreran)

Zergatik dira emakumezkoak gehiago?

Lehen edizioan, Euskal Herrian Euskaraldia ariketan izena eman zutenen artetik, % 62,2 emakumezkoak izan ziren. Lurralde guztietan izan ziren nagusi emakumezkoak. Elgoibarren ere % 38 baino ez ziren izan gizonezkoak. Bigarren edizioan ere, orain arte, antzera daude proportzioak. Zer dago desoreka horren atzean? Bigarren edizioan izena eman duten hiru gizonezkoari gaiaren gaineko gogoeta egiteko eskatu diegu.



Aitor Iriondo

“Parte-hartzea ahalik eta parte-hartuena izatea litzateke proposena.

Kultura eta euskara sustatzeko egitasmoetan partaideen ehuneko nagusia emakumezkoa dela jakina da. Hau ez da positiboa eta aldatu beharra dago. Gizonezkoak busti beharra daukagu!

Ordua da plazara irten eta euskararen alde egiteko. Ordua da gizonezkoak ere gure hizkuntzarekiko konpromiso bat hartzeko prest gaudela erakusteko. Hau da momentua, Euskaraldia da hortarako aukera paregabea. Ezta sakrifizio handia, goazen guztiok euskara ahal dugun guztietan erabiltzera.

Ba al dugu ezer galtzeko?

Utzi dezagun genero desoreka alde batera eta irten gaitezen guztiok parte hartzera! Oraindik pinik ez baduzu, zeren zain zaude?

Gure herrixan euskeraz bizi leike, Elgoibar euskaldun eta euskaltzale bat posible dalako eta izan bihar dalako”.



Pello Aizpurua

“Gizonek protagonismoa behar dute. Hori izan ezean gutxiago azaltzen dira. Gainera, egun bizi dugun egoeran, beraien nahiak eta ardurak arlo profesionalen fokalizatzen dituzte, batez ere. Ondorioz, Euskaraldia ez dago gizonezkoen lehentasunen artean. Euskaraldia, neurri batean, ikusi ere ez dutela egiten esango nuke. Gizonezkoak badaukagu zer ikasia emakumeen parte-hartzeari eta konpromisoari begiratzen badiogu. Euskaraldia da horren adibide. Hala ere, ez dut uste gizonezkoak postalezko euskaldunak garenik, eta erakutsi egin behar dugu gu ere benetako euskaldunak garela. Ez gehiago eta ez gutxiago. Emakume eta gizon, gizon eta emakume, Euskaraldiaren sokara lotu behar garela uste dut.


Egun bizi dugun egoeran ez da erraza aurrez aurre jendeari ezer esatea, baina sare sozialak hor daude, eta Euskaraldian ematen ari den genero-desorekaren berri azalduko nieke nire inguruko gizonezkoek, eta gauza bat argi laga: hitz gutxiago eta praktika gehiago!”



Ander Izagirre

“Euskaraldiko aurreko saioan bezala, dagoeneko izena eman dugu-notatik bi heren emakumezkoak omen dira. Desberdintasun horren inguruko gogoeta egin nahian, euskararen erabileran ere portzentaje horiek emango ote diren zalantza sortzen zait (nahiz eta Euskaraldian *Belarriprestak* ere baditugun). 2017an egindako Elgoibarko kale-erabileraren inguruko ikerketaren arabera, emakumezkoen artean erabilera handiagoa bada ere, ez da inondik inora Euskaraldiko izen ematean ikusten ari garen zenbakien parera iristen. Beraz, badirudi parte-hartzean dagoela gakoa. Horrelako ekitaldietan animatzen “sosoagoak” gara orduan? Nik behintzat argi daukat ekitaldi honen bidez guztiok aberasten garela eta ez euskarak eta ezta Euskaraldiak ere, ez dutela generoen artean bereizketarik egiten. Beraz, ez dezagun guk, gizonezkoak, egin. Zergatik ez zara zu ere izena ematera animatzen? Pedro, Aitor, Bilal... benga, baietz!”





ALEX SEGADE

Ikaslea

Errespetua eta miresmena

terketa ikustera. Aurten, baina, ikusirik Azpeitin eta Azkoitin Covid kasu asko zeudela, ez joatea erabaki nuen. Eta eskerrak. Halako gertaera latz baten berri izatea inork ez duelako gustuko, baina are latzagoa delako zuzenean ikustea.

Gertaera honek pentsarazi egin dit. Auto-gidariak merezi duten errespetua eta miresmena nabarmetzekoa da. Ez denean ezer gertatzen eta dena joan behar den bezala joaten denean, ez da erraza haien ausardia eta trebetasuna azpimarratzea. Halako gauzak gertatzen direnean, aldiz, benetan ikusten da zein arriskutsua eta zaila den auto-lasterketetan gidari izatea. Urrakiko igoeraren antzerako probak zuzenean ikusi dituenak ba-

daki zein azkar dihoazen. Gainera, tokiko lasterketak ez dira ia inoiz notizia izaten. Istripu larriren bat izaten denean bakarrik izaten dira notizia eta hori aldatu egin behar da. Irabazleak ez du sekulako ospea hartzen, ez? Ez da proba mundial bat irabaztea bezala, noski. Hala ere, tipo hauek guztion errespetua eta onespena merezi dute. Gazteleraz esaten den moduan, "por amor al arte" jartzen dira arriskuan. Bertako komunikabideek ez badituzte tokiko auto-gidarien lorpenak azpimarratzen, ezin dugu espero nazionalak egitea. Askori tontakeri hutsa irudituko zai-zue kaskoa jarri, autoan sartu eta azala arriskuan jartzea, helmugara azkarren iristeko, baina niri guztiz kontrako sentipena sortzen dit horrek. Agian ume nintzenetik gertu egon naizelako mundu horretatik.

Orain dela 3 aste Urrakiko igoerako auto lasterketan jaso genezakeen berririk txarrena jaso genuen, Iñaki Irigoien gidaria istripu batean hil zen [Entrenamendu saioan hil zen, Elosiaga auzora iritsi aurreko errepide zatian]. Tokiko komunikabideetan ez eze, komunikabide nazionaletan ere zabaldu zuten berria, eta oso azkar, gainera. Bi urte neraman Urrakira joaten las-

"Auto-lasterketak ez dira ia inoiz notizia izaten. Istripu larriren bat gertatzen denean bakarrik izaten dira notizia eta hori aldatu egin behar da"

 <p>BARREN</p> <p>ARGITARATZAILEA:</p>  <p>ELGOIBARKO IZARRA Euskarazko Topagunea</p>	<p>Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR 943 744 112</p> <p>Publizitatea: 943 743 704</p> <p>barren.publi@elgoibarkoizarra.eus barren@elgoibarkoizarra.eus www.barren.eus</p> <p>BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Irtizia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako en erantzukizunik. KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA Zaloe Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIA Amaia Arrizabalaga KOLABORATZAILEAK Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade INPRIMATEGIA Gertu Koop.E. TIRADA 4.885 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1138-1855</p>	<p>BABESLEA:</p>  <p>ELGOIBAR URDIA AYUNTAMIENTO</p> <p>LAGUNTZAILEAK:</p>  <p>MENDIARRO 1981</p>  <p>Gipuzkoako Foru Aldundia</p>
--	---	--

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ GOGOETARAKO GAIA

Gogoetarako gaia ekarri nahi dut gaur hona. Goizero-goizero edozenbat buelta eman behar izaten ditut Elgoibarren autoa behar bezala aparkatzeko. Zuzenean goi aldera jotzen dut, auzoetara, herri-gune osoan TAO sistema dagoelako eta egun osoa ematen dudalako nik Elgoibarren. Berez, hori ez da arazo, jakina, baina kontua da aspaldi honetan auzoetan ere ez dela lekurik izaten aparkatzeko, eta aldiz, TAO sistema dagoen lekuak, huts-hutsik izaten direla sarri. Amorragarria egiten zait aparkatu ezinda ibili ondoren, Aita Agirre plazan edota Ubitarte inguruan dozenaka leku hutsik ikustea goizero-goizero. Irakurria dut herrigunean mugikortasun handiagoa egotea bilatzen duela TAO sistemak eta horrek on egiten diela herriko merkatariei. Beharbada, bai, baina iruditzen zait oreka bat bilatu behar dela. Goi aldeko auzoetan bizi direnei galdetuko nieke zer pentsatzen duten. Urazandi, San Roke, Erretxundi, Basarte... ez da inon lekurik izaten.

A.A.

▶ OSOKO BILKURAK STREAMING BIDEZ

Prentsaren bidez jakin dut Udaleko bi alderdi politiko nagusiak mokoka dabiltzala. Sare sozialetako irainak aipatu dituzte, errespetu falta eta lekuz kanpo egindako adierazpenak. Aipatu dute baita ere zinegotzi batzuk ez direla osoko bilkuretara joaten, baina zeregin horri dagokion dirua kobratzen dutela, eta beste hainbat gauza ere bai, baina herritarrak ez gara ezertaz enteratzen. Sare sozialetan ibiltzen ez garenok, ez dakigu hau guztia nondik datorren, eta galduta gaude. Udalak gardentasuna aldarrikatzen du, baina ez du praktikan jartzen. Zergatik ez dute ematen aukera osoko bilkurak streaming bidez jarraitzeko? Pandemia egoera honetan ez da komenigarria osoko bilkuretara joatea ikusle moduan, beraz, aukera egokia iruditzen zait herritarrei bilera horiek zuzenean ikusteko aukera ematea.

J.U.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituhitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia demagorezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idatzkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelazko datoren eskutitz argitaratuko.

Osasun gida Osasun gida Osasun gida

aldaz
hortz klinikak
RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA
Toribio Etxebarria, 22
Eibar
677 551 850

fisioSmás
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea
Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 607 951 608
www.fisio-mas.com
RPS 177/12

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

FUB Fernando Urizar
R.P.S.: 32/17 Barandiaran
Medikuntzan doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitikoak
Psikosomatika
Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Bailen kalea, 9, 1, ezk. (Bilbo)
furizarf@yahoo.com
615 715 404

leku edero
hortz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Eparantzeta, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

RPS 271/12
ainhoa
fisioterapia
Jausoro plaza, 6 beheka
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

Osasun gida Osasun gida Osasun gida

Euskal Telebistak inoiz eman duen diru-sari handienetarikoa irabazi du Bruno Guerrero elgoibartarrak

Bruno Guerrerok 147.000 euroko saria irabazi du *Atrápame si puedes* ETB2ko lehiaketan. Patxi Alonsok gidatzen duen lehiaketako zazpigarren denboraldiko lehiakide nagusienetako bat izan da Guerrero azken asteotan, eta behin baino gehiagotan izan du eskura sari nagusia azken minutuko proban. Azaroaren 2an lortu zuen azken minutuko bost galderei zuzen erantzutea, eta horri esker Euskal Telebistak inoiz eman duen diru-sari handienetarikoa irabazi du. Besteak beste, *Memorias de África* eleberria ze herrialde-tan girotuta dagoen edo Fettermanen hilketan parte hartu zuen sioux buruzagia nor izan zen bezalako galderei erantzun behar izan zien.



Altzolako bizilaguna da eta, ogibidez, tornularia Bruno Guerrero, eta horrez gain, telebista saioetan, lehiaketetan bereziki, parte hartu zalea da. 2008an Cuatro kateko El Gran Quiz lehiaketan hartu zuen parte, eta 2016an ere *Atrápame si puedes* saioan ikusi genuen. Saria irabazi zuen unean esan zuen aurrerantzean lasaiago bizitzeko eta familiaz gehiago gozatzeko aukera izango duela, eta irabazitako dirua hipoteka ordaintzeko eta familiarekin bidaia bat egiteko erabiliko dituela.

Bi istripu izan ziren astelehenean Elgoibarren, ehun metroko distantzian



Astelehen goizean auto batek istripua izan zuen Deba kalean, 634 errepidean, Eibarko norabidean. Ford Lerun eta Carrocerias Urasandi enpresen parean gertatu zen ezbehera. Autoaren kontrola galdu zuen gidariak, eta kontrako norantzako erraia gurutzatu ostean, harrizko petrilaren kontra jo zuen. Auto barruan harrapatuta gelditu zen gidaria, eta suhiltzaileak bertaratu behar izan zuten gidaria autotik ateratzeko. Zauritua Mendaroko ospitalera eraman zuten.

Arratsaldean, berriz, 18:30 inguruan, beste istripu bat gertatu zen goizekoa izan zen lekutik ehun bat metrora, hain zuzen ere, gasolindegi inguruan. Hiru autok elkar jo zuten, eta ondorioz, auto ilara handiak sortu ziren ingurune horretan. Larrialdi Zerbitzuetakoak bertaratu ziren eta zauritu bat eraman zuten Mendaroko ospitalera.



Herriko autobus zerbitzuaren lineak gehitu ditu Elgoibarko Udalak eta ordutegia zabaldu du

Urazandiko igogailuaren obrak iraun bitarterako martxan jarri zuten autobus zerbitzua zabaldu du Elgoibarko Udalak. Hortaz, astelehenetik geraleku gehiago ditu autobus zerbitzuak eta ordutegi zabalagoa. Aurrerantzean, beraz, autobusak Herri Eskolan ere egingo du geldialdia, Kalamua kaleari zerbitzua emateko. Aita Agirretik bi zerbitzu irtengo dira, eta linea berri bat egongo da Maala eta Meliton artean, San Pedroko eta Iñiguez Karkizao kaleetako auzotarrei zerbitzua emateko. Ordutegiari dagokionez, zapatu goizetan ere martxan egongo da herriko autobus zerbitzua: 10:00etatik 13:00etara. Jai egunetan ez da autobus zerbitzurik egongo.

Udaletik jakinarazi dute zerbitzuaren bilakaera eta beharrak aztertu dituztela batetik, eta bestetik, zerbitzuaren "benetako erabilera" baloratu dutela, erabiltzaileen iritziak jasota. Bestek beste, Urazandiko auzo-elkartearen, auzotarren eta udal taldeen ekarpenak aztertu dituztela jakinarazi dute. Iosu Arraiz Hirigintzako zinegotziak emandako datuen arabera, autobusa martxan jarri zenetik 5.500 bidaiatik gora egin ditu. Irailean eta urrian erabili da gehien zerbitzua eta Urazandiko linea izan da gehien egindako ibilbidea. Horrez gain, azaldu du bidai bakoitzak 2,5 euro pasatxoko kostua izan duela Udalarentzat.

EH Bilduren kritika

Herrirako autobus zerbitzu integrala ezartzeko alderdiekin eta auzotarrekin elkarrizketa abiatzeko hartutako konpromisoa "modu aldebakarrean apurtzea" aurpegiatu dio Elgoibarko EH Bilduk Udal Gobernuari. EH Bilduk dio auzo guztietara iritsiko



den udal autobus zerbitzu bat udalerrian martxan jartzeko aukeraren inguruan talde politikoekin eta bizilagunekin hasitako eztabaida amaitzea erabaki duela Elgoibarko Udal Gobernuak. Ezker subiranistaren iritziz, Elgoibarrentzat oso albiste txarra da hori, zerbitzu publiko bat ukatzen baitzaie herritarrei. Zehaztu dutenez, elkarrizketak eta eztabaida hasi orduko eman dituzte amaitutzat. EH Bilduk martxan dagoen autobus zerbitzu honen iraupenean jarri du fokua. "Udalaren komunikatuak azaltzen duenez, autobus zerbitzua Urazandiko igogailuak eraikitzeko lanek irauten duten bitartean bakarrik mantenduko da. Lanak amaitutakoan, Elgoibarren ez da udal autobus zerbitzurik egongo. Hori, zalantzarik gabe, oso albiste txarra da Elgoibarrentzat eta, bereziki, orain autobus-zerbitzuaz gozatzen ari diren herritarrentzat". Herri osoa hartuko duen autobus zerbitzu integrala defendatzen du EHBilduk.

Osasuna eta eskubideak aldarrikatzeko auto-karabana Elgoibarren amaitu zuten zapatuan

Osasuna eta Eskubideak plataformak deituta, auto karabana egin zuten zapatuan Gipuzkoako hainbat herritan zehar *osasuna eta eskubideak* eskatuz, eta Elgoibarren bukatu zuten protesta. COVID-19 gaitzak ekarri duen egoeraren aurrean, salatu dute ez daukela ados hartu diren hainbat erabakirekin. "Erabat desproporzionalak eta justifikatu gabeko neurriak" dira uste dute, eta eztabaida zientifikoa eskatu dute: PCR testaren errebisio zientifikoa, musukoen eraginkortasun eza, herritarren eskubideen urraketa edo Poliziaren errepresioa gelditzea.

Manifestazioan parte hartu zuten zenbait kide Idortobera igo ziren arratsaldean, eta han ziren zenbait herritarrek esandakoaren arabera, musukorik gabe eta Jaurilaritzak ezarritako neurriak zaindu gabe ibili ziren. Udaltzainak eta Ertzainak bertaratu ziren eta 22 bat lagun identifikatu zituzten, musukorik gabe zeudelako eta herriarteko muga perimetrala gainditu zutelako, haietako asko ez zirelako Elgoibarkoak.



Kalitatezko osasun zerbitzu publikoa eskatzeko mobilizazioak egin dira

Ez da estreinako aldia, eta ez du ematen azkena izango denik, mobilizazio gehiago iragarri dituztelako deitzaileek. Kalitatezko osasun zerbitzua eskatzen dute eta eguaztenean, azaroaren 4an, protestak egin zituzten osasun zentroyen aurrean, baita Elgoibarren eta Mendaron ere. Elgoibarren ere mobilizazioarekin bat egin zuten hainbat herritarrek, bai eta Elgoibarko Pentsiodunen Mugimenduak ere. *Osasungintza publikoa defendatu* lelopean elkartu ziren denak anbulatorio atarian, 19:00etan. Osasungintza publikoa indartzeko neurriak eskatu dituzte, hiru ardatz nagusitan bildu dituzte eskaerak: lehen arretarako baliabide gehiago ezartzeko eskatu dute eta osasungintzarako inbertsioa handitzea, gutxienez Barne Produktu Gordinaren %7ra. Eta azkenik, garbi utzi dute ez dutela murrizketarik eta pribatizaziorik nahi.



Azaroaren 9tik aurrera salduko dira Ama Birjinaren egutegiak

San Bartolome parrokiatik jakinarazi dute aurten ez dela Ama Birjina Milagrosaren bederatiurrenik egingo, koronabirusaren pandemia dela-eta. Haren aldeko meza, azaroaren 29an izango da, parrokiari, 11:30ean. Ama Birjinaren egutegiak berriz, azaroaren 9tik aurrera salduko dituzte, San Frantzisko kaleko 19. zenbakian (Kontxi ume-arropa denda egon zen lokalean, Eizagirre okidengiarene parean). Goizez egongo da irekita lokala, 10:00etatik 12:30era, aste barruan.

'On egin' bonoak salgai, astelehenetik aurrera

Udalak "On egin" bonoen beste kanpaina bat jarri du martxan, herriko ostalaritza suspertzeko, eta baita Elgoibarko familien ekonomia arintzeko. Azaroaren 9tik 12ra bitartean 2.000 bono jarriko dituzte salgai. Era telematikoan erosi ahal izango dira, 19:00etatik aurrera, udalako web orrian. Gehienez 500 bono salduko dituzte egunean. Bono bakoitza 8 eurokoa izango da; Udalak 4 euro jarriko ditu, eta erosleak beste 4 euro. Pertsona bakoitzak 5 bonu erosi ahal izango ditu gehienez.

60 harrera-familia behar dira Gipuzkoan, zailtasun handiak dituzten haur eta nerabeak hartzeko

Gipuzkoako Foru Aldundiak *Ikusgaitzak* kanpaina abiatu du familia beharrean dauden haurrak ikusarazteko, haien errealitatea ezagutzera emateko. Harrera-familia programak 31 urte bete ditu aurten, eta gaur egun, 414 haur eta gazte bizi dira Gipuzkoan harrera-familietan (horietatik 338 adingabeak dira, eta beste 76k harrera-familietan bizitzen jarraitzen dute adinez nagusikoak izan arren). Aldunditik jakinarazi dute beste 60 harrera-familia behar dituztela, zailtasun handiko egoeran bizi diren haurrak eta nerabeak hartzeko, familiako egoera dela-eta, euren familia ingurunetik kanpo egon beharra dutelako aldi batez.



Proporzionaltasunaz “ezer gutxi” jakitzea leporatu dio Elkarrekin Podemosek EAJri, ‘MoraDOS’ aldizkariaren harira esandakoengatik

E AJk joan zen astean emandako prentsaurrekoari erantzun dio Evaristo Rodriguez Elkarrekin-Podemoseko zinegotziak, Youtubeb eskegi duen bideo baten bidez. Jorge Hernando EH Bilduko zinegotziak Facebookeko orrialde batean zabalduak idatziaren eta Elgoibarko Ahal Dugu-Podemosek etxe banatu zuten MoraDOS aldizkariaren harira, prentsaurrekoa eman zuten Ane Beitia alkateak, Alfredo Etxeberria Elgoibarko EAJko buruak eta Maialen Gurrutxaga zinegotziak urriaren 27an eta EAJren eta zinegotzi jeltzaleen kontra gezurrak, deskalifikazioak eta irainak esan izana egotzi zieten oposizioko ordezkariari. Elkarrekin-Podemosi, zehazki, “oinaririk gabeko prebarikazio akusazioak” egitea leporatu zioten. Eta erantzun egin die orain Evaristo Rodriguezek. “Argitaratu genuen erreportajeetako batean alkatearen izena eta haren familia aipatzen zirelako daude samindurik, eta barkamena eskatzen diegu, ez baitzen gure asmoa eurek mintzea. Baina, tira, epelak esan zizkiguten”, zehaztu du Evaristok. Indarra erakutsi nahi bat ikusi dio Evaristok EAJk prentsaurrekora deitu izanari: “Indar erakustaldia egitea bazen euren asmoa, erakusteko komunikabideak menperatzeko duten gaitasuna, etxez etxe banatzen dugun gurea moduko panfleto xume baten aurrean, ez zegoen horretarako beharrik. Bagenekien”. Horren harira esan du MoraDOS aldizkarian zehaztuta zeudela eurekin harremanetan jartzeko loturak, baina haiek erabili ordez, “handitasunez” jokatzeari nahiago izan duela EAJk. Jeltzaleek prentsaurrekoa eman zuten egun berean osoko bilkura egon zela gogorarazi du Rodriguezek eta han marra gorriez hitz egin



zietela zehaztu du: “Baina ez daukat oso argi zer diren marra goririk. Zer dira? Guk ezin ditzakegu beraiek aipatu ere egin, baina eurek guri edozer esan diezagukete besterik gabe?. Nire gurasoek esaten zidaten berba eginda konpontzen direla gauzak eta adibidearen bidez irakasten dela. Kontua ez da zenbat eta gorago egon garrantzitsuagoa sentitzea, baizik eta zerbitzalagoa izatea”. Guzti horren harira proporzionaltasunaz ezer gutxi jakitzea leporatu dio alderdi moreak EAJri. “Euliak kanoi-danbadaka garbitzen dituzte”, bota du.

Osasungintza publikoaren kudeaketa “desastre hutsa” dela salatu dute

Uztailen aurkeztu zuten Elgoibarko Pentsiodunen Mugimenduak “osasun publiko duinaren aldeko” mozioa, EH Bildu eta Podemosen bidez, baina mozioak ez zuen aurrera egin. Haren ordez, EAJk eta PSOEek aurkeztu zutenak egin zuen aurrera. “Elgoibarko anbulatorioko lehen mailako arreta berdina da gaur egun. Besterik da udako ordutegia (ekainabuztua) 17:00ak arte izatea Elgoibarko Osasun Zentroan. Ordu horretatik aurrera, arreta Eibarko Ospitaleko Torrekuko IUPean jartzen da, une honetan”, zioen onartu zuten mozioak. Baina Elgoibarko Pentsiodunen Mugimenduak salatu du azaroan egoera berean gaudela. “Gezurra da anbulatorioko lehen mailako arreta berdina denik, ez baitago alde aurreko arretarik, kasu zehatzen batean izan ezik”, jaso dute. Mugimendutik salatu dute adinekoek arazoak dituztela gaur osasun arreta jasotzeko, eta Osakidetza lankideak ere haserre daudela. “Haserre, jendea duintasunez artatzeko baliabideak ematen ez dizkietelako”. Horregatik, bat egin dute asteon sindikatuek deituta osasun zentroen aurrean egin diren mobilizazioekin. Zaharren egoitzetako lankideei ere elkartasuna agertu diete. “Beren lana egiteko baliabideak jartzen ez dizkiete hartzen, eta gainera, denbora gehiegi daramate beren aldarrikapenen alde borrokan”. Hori guztiagatik uste dute osasun publikoaren kudeaketa “desastre hutsa” ari dela izaten. “Urteetan lortu dugun guztia, lortu ditugun zerbitzu publikoak, arrapaladan eskasten ari dira, sistema pribatua sustatzeko helburu bakarrarekin, publikoaren kaltetan”. Eta gehiago ere esan dute: “Orain esango digute COVID-19ak duela errua. Ez da horrela. Sistema publikoaren nariadura planifikatua da, gutxienez 1999. urtetik garatzen ari dena. Ez gezurrik esan”.

▶ FERNANDO SUAREZ

PSE-EE ALDERDIKO
ZINEGOTZI IZANDAKOA

21 urte egin ditu Fernando Suarezek (Ourense, 1956) Elgoibarko Udaleko PSE-EEko zinegotzi karguan, eta lan arrazoiak direla-eta, kargua uztea erabaki du. Galizian jaio zen, eta jaioberritan iritsi zen Euskal Herrira, Soraluzera lehenengo eta Eibarrera ondoren. Aita ezkertiarra zuen, eta aitaren ideiak umetatik jaso zituen etxean. Gaztetan, sozialismoaren iturritik edan zuen Eibarran, eta frankismoaren diktaduraren kontrako sentimendua indartu zuen. Alderdi Komunistako lagunekin batu zen, eta bere ideologia politikoa sendotu zuen. Euskadiko Ezkerrara afiliatu zen, gerora, PSE-EE izango zena. 1978an Elgoibarrera ezkondu zen, eta Ovidio Campello zenarekin batera, Elgoibarko alderdi sozialistaren barruan hasi ziren Elgoibar "hobetzeko" lanean. 1999an hartu zuen zinegotzi kargua, eta oraintsura arte jardun da lanean. Une onak eta txarrak bizi izan ditu Udalean egin duen ibilbidean, baina txarrak ahaztu eta onak gogoan hartuta agurtu da, eta herritarrei eskerrak eman dizkie urte hauetan guztietan erakutsi dieten begiruneagatik.

- AINHOA ANDONEGI -

“Une txarrak gutxi izan dira,
baina gogorrak; gogorregiak”

◆ Noiz eta nola iritsi zinen politikara?

Ourensean jaio nintzen arren, urtebete egin nuenerako Eibarren bizi nintzen, eta hango giroak eragin zuen nigan. Nire aita ere sozialista zen, nahiz eta ez zen politikako militante izan, baina haren ideiak jaso nituen etxean. 13-14 urte nituenerako interes handia neukan politikan, eta ezker aldeko alderdiak nituen gogoko; ezkertiarak, baina Euskal Herrikoak. OTR (Organización de Trabajadores Radicales) alderdian sartu nintzen lehenengo; gazte protestanteak ginen. Errepresio handia zegoen garai hartan, eta horrek bultzatu ninduen ezker aldera lerratzerara, askatasunaren alde borrokatzeko. Soldaduska ere egin behar izan nuen, baina horren kontra nengoen eta denbora galtze hutsa irudituz zitzaidan. Nire ideiak gero eta argiago nituen, baina nire gustuko alderdi politikoa ez nuen berehalakoan aurkitu. Ezker abertzalearekin ez nintzen identifikatzen, baina PSOErekin ere ez. Orduan, Juan Maria Bandres eta Mario Onaindiak Euskadiko Ezkerra alderdia sortu zuten, beste batzuekin batera, eta han sartu nintzen. Eibarren nituen lagun asko ere buelta hartakoak ziren, Mario Onaindia bera ere laguna nuen, eta gazte asko sartu ginen alderdian. Urteetara Euskadiko Ezkerra eta Euskadiko Alderdi Komunista batu egin ziren, eta handik urte batzuetara, Euskadiko Ezkerra eta PSOEk egin zuten bat. Poliki-poliki Euskadiko Ezkerra indarra galduz joan zen. Ordurako Elgoibarren bizi nintzen, eta Ovidio Campello zenarekin hasi ginen alderdi sozialistarekin lanean. 27 bat urte neuzkan orduan.

◆ 1999an hartu zenuen PSE-EEko zinegotzi kargua Elgoibarko Udalean. Zein helbururekin sartu zinen zinegotzi?

Ni auzoko zinegotzia izan naiz. Urazandin bizi nintzen, eta garai hartan auzo hura erabat ahaztuta zegoen. Errekaren bestaldean, mendia kontra... Utzita zegoen. Lehenengo elkarte modura hasi ginen auzoaren alde zerbait egiten, eta Urazandiko festak antolatu genituen hiru urtez. Ondoren, Herri Gain elkarteak hartu zuen jaien ardura eta beste hiru urtean ospatu genituen. Urazandi existitzen zela erakutsi nahi genuen, Elgoibar ez zela San Roke bakarrik; atentzioa deitu nahi genuen. Hori guztia zinegotzi izatera iritsi aurretik egin genuen. Behin Udalean sartuta, alderdi sozialistaren programa osatu genuen eta orduan egin genuen auzoko barandak konpontzeko promosamena eta eskailera mekanikoak jartzerena, besteak beste. Haurrentzako parkeak ere lortu genituen, eta auzoko goi aldera autok iristeko bidea egitea ere bai. Auzoa berurbanizatu eta auzorako sarrera-irteera berriak egiteko proiektua ere egin genuen, eta hori ere egingo da egune batean. Urazandin zentratu gara bereziki, baina herria eta herriarren beharrak ahaztu gabe, eta horren ha-

“Garai batean ezker abertzaleko jendearekin ez nuen harreman onik izan”

rira, azken urteetako gure borroka San Lazaro egoitza hobetzea izan da. Ovidio hil zenean neuk hartu nuen Ongizate Sailaren ardura, eta ordutik nabil elgoibartarrentzako egoitza duin baten alde lanean. Orain dela urte batzuk erabaki genuen Pilarreko eraikina zegoen lursoruan eraikitzea egoitza berria eta Aldundiak ere begi onez ikusi zuen

proiektua, baina justu orduan aldaketa egon zen Aldundian. EH-Bilduk hartu zuen Aldundiaren ardura, eta Elgoibarko egoitzarentzat zegoen dirua beste zeregin batzuetara bideratzea erabaki zuten, tartean atez ateko zabor sistema famatura. Hala ere, Elgoibarko Udalak Pilar eraikina bota zuen eta egoitza berria egin arte aparkaleku modura erabiltzeko atondu zuen ingurune hori. Baina egoitza egingo da, eta egoitza egiteko obrak aprobetxatuko dira Urazandiko sarrera-irteera berriak eraikitzeko. King-Kong eta Urazandi lotzea geratuko litzaiguke, baina hori oso zaila da. Zubia ez da egokia, badakigu aldapa handia duela, baina ez dauka konponbide erraza. Udala lanean ari da, aukera desberdinak aztertzen, baina dena egiteko dirurik ez dago, eta pandemia honekin, gutxiago.

◆ Alderdi sozialista lau zinegotzi izatera ere iritsi zen hauteskunde batzuetan Elgoibarren, baina orain bakarra dauka.

Bai, Alfredo Etxeberriak alkateza hartu zuen lehenengo legegintzaldian lau zinegotzi lortu genituen. Bi aldagai garrantzitsu izan ziren hori ahalbidetu zutenak: batetik, aurreko legegintzaldian Marivi Agirregomezkorta alkateak ostegunetako merkadilloarekin izan zuen gatazkak botoak kendu zizkion EAJri, eta bestetik, ezker abertzalea urte hartan legez kanpo zegoen eta ez zioten utzi hauteskundeetara aurkezten. EAK hiru zinegotzi eskuratu zituen, Aralar eta Ezker Batuak bi eta alderdi popularrak, bat. Gainerakoak, EAJK lortu zituen. Aukera izan genuen ezkerreko udal gobernu eratzeko, baina EAK eta EAJK koalizioa egin zuten.

◆ Oposizioan lan egitea tokatu izan zaizu askotan, baina



Fernando Suarez erdian, Udaleko osoko bilkuran.



PSE-EEko Elgoibarko hainbat militante, tartean Ovidio Campello (†) eta Nerea Alustiza zinegotziak.

azken urteetan EAJrekin gobernu taldean ere egon zara. Zer da errazagoa, oposizioan lan egitea ala gobernuan?

Oposizioan egotea erosoagoa da. Udal Gobernuan egotean nahi duzu herritar guztiertzako lan egin, denekin ondo geratu nahi duzu eta hori ezinezkoa da. Borondate guztia jarri arren, ez dituzu denak gustura lagako. Norberaren alderdiko denak poztea ere zaila izaten da, pentsa herritar guztiak! Hemen diruak agintzen du, eta denerako dirurik ez dago. Politikan sartzen zarenean argi eduki behar duzu ez duzula inoiz herritar guztiak asmatuko. Lehentasunak jarri behar dira, eta lehentasunetan bakoitzak bereak dauzka.

♦ 21 urte hauetan une onak eta txarrak bizi izango zenituen Udalean.

Bai, hala da. Une txarrak gutxi izan dira, baina gogorak; gogorregiak. ETAk alderdiko zinegotziak hiltzen zituen garaia latza izan zen benetan. Lagunak hil zizkidaten, eta une hartan behin baino gehiagotan galdetzen nion nire buruari ea merezi zuen jarraitzeak. Familiakoek lagatzeko esaten zidaten, euren burua ere arriskuan ikusten zutelako, baina nik sinisten nuen politikan eta aurrera egitea erabaki nuen. Diktadura batetik genduzen, eta ni ez nengoen prest ETAk ezarri nahi zigun diktadura onartzeko. Nik nire ideiak defendatu nahi nituen, ez besterik. Gogorra izan zen nire eta Ovidioren irudiak diana baten barruan ikustea karteletan. Garai hartan egunero ordutegiak aldatzen ibili behar izaten nuen, auto azpiak begiratu eta bi bizkartzainekin bizi.

Egunero iriteten nintzen etxetik, itzuliko ote nintzen jakin gabe. Inork ez zuen nahi alderdi sozialistan sartu, jendea ez zen ausartzen. Urte gogorak izan ziren haiak, udaletxe barruan ere, eta Ezker Abertzaleko jendearengandik irainak jasotzen genituen agur modura. Espainola nintzela esateak ez ninduen iraintzen, espainiarra sentitzen naizelako, baina faszista edo putaseme esatea adibidez, ez nuen ulertzen. Hala ere, ez ginen kikildu. Ez dut inoiz ahaztuko ezta ere Urazandiko egoitzan lehergailua jarri zuten eguna. Amorrua sentitu nuen, ez egoitzagatik, hura zen gutxienekoa, kalte materialak izan zirelako soilik, baina auzotarrengan pentsatzean sentitzen nuen amorrua. Zorionez, garai hura bukatu zen, eta jendeak jakin behar du gatazka horren amaieran alderdi sozialistak paper garrantzitsua izan duela. Zapatero zegoen orduan Espainiako Gobernuko presidente karguan, eta Patxi Lopez Jaurlaritzan. Leporatu izan digute ETArekin negoziatu genuela, baina ez zegoen beste aukerarik. Horri esker bukatu zen borroka armatua.

♦ Nolakoa harremana izan duzu gainerako alderdietako kideekin Udalean?

“Gehiago egin daiteke, baina Elgoibarren asko egin dugu azken 21 urteotan”

Garai batean ezker abertzaleko jendearekin ez nuen harreman onik izan, baina Udalean baino gehiago kanpoan esango nuke zela zaila harremana. Udalean, oro har, harremanak onak izan dira. EAJrekin izan dugu erlazio gehiena, eta izan ditugu gure liskarrak, Marivi [Agirregomezkorta] alkatearekin, batez ere. Nik ezagutzen nuen Marivi alkate izan aurretik ere lan kontuetatik, eta banekien ona zela bere lanean, baina aldi berean, burugorria. Merkadilloarekin tematu zen, eta aitortzen dut erabaki hark guri mesede egin zigula hurrengo legealdian. Gainerako alkateekin eta zinegotziekin harremana ona izan da. Gizakiak gara eta pertsona bezala errespetuan oinarritu izan gara, norberaren ideiak albo batera utzita. Harremanik zailena ezker abertzalekoekin izan da. Nik ondo ikusten dut beraien independentzia aldarrikatzea, edo presoen eskubideak defendatzea, baina ez nazatela ni ere horretara

derrigortu. Eta hori gertatzen zen, ez banuen beraiena onartzen, ni nintzen txarra. Nik gai horietan beti esan izan dut legeak agintzen duela. Azken urteetan asko aldatu da euren jarrera, ez dira hain muturrekoak eta borroka armatua amaitu zenetik askoz errazagoa izan da dena. Orain lasai hitz egin daiteke. Hala ere, akordioak lortzea ez da erraza, bakoitzak bere interesak dituelako eta denerako dirurik ez dagoelako. Alderdi guztiok nahi dugu Elgoibar hobetu, baina bakoitzak berea defendatzen du. Dena dela, lasai hitz egin ahal izatea, asko da, bizi izan dugunarekin.

♦ Nola aldatu da Elgoibar 21 urteotan?

Gehiago egin daiteke, baina Elgoibarren asko egin dugu azken 21 urteotan. Elgoibar asko hobetu da, baina dena ezin da egin. Guk nahiko genuke aparkaleku gehiago egin, umeentzako parke gehiago, berdegune gehiago... baina Elgoibarrek fisikoki ez du aukera askorik ematen, mendialdera ez bada behintzat, eta dena erdigunean nahi dugu. Baina auzoetan badago oraindik zer hobetu: espaloiak, argiteria... Baina ni pozik nago egin dugunarekin. Sigma auzorako hobekuntza proiektua ere eginga dago, baina oraindik etxe gehiago egingo dituzte

han eta horiek bukatu arte ezin dira beste obrak egin. Eta gure programaren barruan aspalditik proposatu izan dugu auzoetarako autobus zerbitzua martxan jartzea. Orain badirudi gai hori EHBildurena dela! Niri berdin zait proposamena norena den, garrantzitsuena herritarrek irabaztea da, eta ez dominak jartzea. Urazandiko obren

harira jarri du Udalak autobus zerbitzua martxan eta orain aztertu egingo da erabilera, aurrera begirako erabakiak hartzeko. Ni pozik nago Elgoibarren egin dugun lanarekin. Hemendik aurrera garai gogorak datoz, koronabirusaren eraginez Udalak diru-sarrera gutxiago izango dituelako. Ezingo dira proiektu guztiak batera egin, baina ahal denean seguru egingo direla.

♦ **Ariana Nogalesek beteko du zure lekua Elgoibarko Udalean.**

Bai, sekulako sorpresa hartu nuen ezagutu nuenean. Bere gaztetasunak eta ilusioak harritu nau! Ez da erraza gazteak politikara erakartzea, eta are zailagoa da alderdi sozialistara ekartzea. Elgoibarren 33 afiliatu geneuzkan orain dela gutxira arte, eta neu nintzen gazteena. Orain badaude gazte batzuk alderdian, baina lehen lerroan sartzeko prest daudenak oso gutxi dira.

♦ **Zein da zinegotzi baten zeregina?**

Udaleko egituran dauden batzordeetan parte hartu behar du, han lantzen diren gaietarako buruzko informazioa jasotzeko; hilean behin osoko bilkura izaten da, eta horrez gain, alderdiaren bileretan ere hartu behar izaten da parte. Zinegotzi lanak denbora asko eskatzen du, lana ondo egin nahi baduzu behintzat. Dedikazio handia eta ezinbestekoa da gai horiek gustuko izatea. Nik aurreko legealdian laga nahi nuen kargua, ez nuen aurkeztu nahi, baina ez zegoenez inor, berriz ere neu joan nintzen zerrendaburu. Arianak bigarren izateari baiezkoa eman zionean ezin nuen sinetsi. Nik esan nion lagunduko niola, alboan izango ninduela babesteko eta lasai egoteko. Azkenean zinegotzi bakarra eskuratu genuenez, bera ez zen Udalean sartu. Orain, baina, kargua utzi behar izan dut lan kontuegatik, eta bera izango da sozialisten ordezkaria Elgoibarren. Ongizate Saila eta Pertsonal Saila izango ditu bere arduran. Oraingo lanean ere giza baliabideen alorrean lan egiten du eta jantzita dago gai horietan. Oso ondo prestatuta ikusten dut. Esperientzia falta zaio, baina hori denborak emango dio.

♦ **Zein aholku emango zenioke?**

Ilusioz lan egin dezala esan diot. Ni neu ere bera bezalako gazte sartu nintzen, eta garrantzitsuena kargua gogoz hartzea da. Bere ideiak defendatzeko esan diot, eta pen-

“Ez da erraza gazteak politikara erakartzea, eta gutxiago, alderdi sozialistara ekartzea”

tsatzen duenarekin aurrera egiteko. Zerbait ulertzen ez duenean ere behin eta berriz galdetu dezala gomendatu diot, ez edukitzeko galdetzeko lotsarik, eta lasai egoteko, alderdiaren babesa eta laguntza izango dituelako uneoro. Nik alderdian jarraituko dut eta Donostian ere badaukagu aholkulari talde bat.

Nik gogotsu ikusten dut eta nire kargua bere arduran lagata, lasai noa, esku onetan utzi dudalako. Orain, gainera, garai lasaia da, gatazkarik gabekoa eta dena errazago egingo zaio. Nik kontatu diot nola bizi izan ginen hemen garai batean, eta ikaratuta geratu da.

♦ **Zinegotzi bat libre al da bere ideien alde egiteko alderdiaren kontra joan arren?**

Normalena alderdiaren ildo politikoarekin eta ideiekin bat egitea da, baina nik egin izan dut alderdiaren kontra behin baino gehiagotan. Hori bai, beti etxe barruko kongresuetan. Alderdi barruko bileretan aurkeztu izan dut beti nire pentsamendua, eta batzuetan ez da alderdiaren pentsamenduekin bat etorri.

♦ **Zer esan nahi diezu elgoibartarrei zure agurrean?**

Eskerrak eman nahi dizkiet elgoibartar guztiei, bai bozkatu nautenei eta baita gainerakoei ere, nire ibilbidean zehar eman didaten babesagatik. Pozik noa Elgoibarko Udaketik, ibilbide oparoa izan dut, eta elgoibartarren alde lan egin izan dut beti. Badakit denekin ez dudala asmatu, baina nire borondate onenarekin jardun dut lanean. Eskerrak eman nahi dizkiet baita ere Udaleko langile guztiei, nirekin jarrera ona erakutsi dutelako beti. BARRENI eta gainerako Elgoibarko berriemaileei ere eskerrak eman behar dizkizuet, beti erakutsi duzelako niganako begirunea. Ondo ari zarete, eta jarraitu horrela, herritarrentzat informazioa oso garrantzitsua da-eta.



Fernando Suarez, hauteskunde kanpainan larrosak banatzen.

▶ ALFONSO GUILLO

LEOK'K TALDEKO KIDEA

San Bartolome jaiek bertan behera utzi zituen Elgoibarko Udalak koronabirusak hala behartuta, eta ondorioz, jaietarako aurreikusi zituzten kontzertuei bide emateko ziklo bat prestatu dute: 'Oingoan bai'. Ziklo horren barruan Bikustik eta Amorantek eskaini dituzte kontzertuak dagoeneko, eta gaur beste bi talderen txanda izango da: Leok'k eta Elaner's. Elgoibarko musikagintzan ezagunak diren bi musikaririk hartzen dute parte talde horietan, eta haiekin egon gara, taldeak aurkezteko. 19:00etan hasiko da emanaldia, Herriko Antzokian.

- AINHOA ANDONEGI -

"Ez dugu diruagatik jotzen; gozatu egiten dugu oholtzan"

♦ **Koronabirusaren pandemiak bertan behera utzi zuen sanbartolomeetako emanaldia, eta orain ere, pandemiaren bigarren olatuaren erdian dator zuen saioa. Nola moldatu zarete elkartzeko zailtasunak dauden garai honetan emanaldia prestatzeko?**

Aspalditik jotzen dugu grabatutako abestien bitartez, norberak bere aldetik, beraz, ez daukagu abestiak jotzeko arazo berezirik. Kontzertuan eskainiko ditugun abesti guztiak aurrez grabatuta ditugu diskorako, eta horiek entzuten praktikatzen dugu bakarka. Aspalditik gabiltza kide guztiok musikagintzan, eta ez dut uste arazorik izango dugunik. Bakoitzak bere atala ondo menperatuta izango du, ez daukat horren dudarik, eta besteak josten duenari adi egotea izango da kontua. Pandemiaren kontu hau dena hasi aurretik Zestoan biltzen ginen, baina orain ezin gara elkartu. Bat Donostiakoa da, beste bat Zumaiakoa, hirugarren bat Zarauzkoa eta beste bi zestoarrak dira.

♦ **Ez zara atzo goizekoa musikagintzan. Expresion Sonora, Koska, Aterri, A2an eta orain Leok'k. Nola iritsi zara talde honetara?**

Gabi [Agirregomezkorta] eta Eibarko beste musikari batekin Aterri taldea daukagu, eta Zumaian emanaldi bat eskaini genuen 2018an. Han geundela Leok'k taldeko Luis Llavori gerturatu zitzaidan. Aspaldiko lagunak gara, eta berbetan egon ginen musikaz eta beste hainbat gauzari buruz. Handik hilabete batzuetara deitu zidan proposamen bat egiteko, eta galdetu zidan ea baxua grabatuko nuen Leok'k taldearen 50. urteurrenerako prestatzen ari ziren diskorako. Baietz erantzun nion, gustura egingo nuela, gainera. 2018ko udaberrian zehar grabatu genuen, eta uda hartan kanpoan ibili nintzen arren, egunero entseatzen nuen, irailaren 3an



Zestoan egin behar genuelako diskoaren aurkezpena. Kontzertu hark beste batzuk ekarri zituen, eta gero komentatu zidaten ea taldean jarraituko nuen, eta holaxe jarraitzen dut. Leok'k, Aterri eta Gabirekin daukadan A2an dira martxan ditudan proiektuak. Azken hau apur bat geldituta daukagu une honetan, baina edozein momentuan proposamen interesgarriren bat jasoz gero, berriz martxan jartzeko inolako arazorik ez genuke izango.

♦ **Euskadin rock and rolak ez du dirurik emanen... Hala ere, zuek rock and rolla egiten duzue, eta euskaraz.**

Bai, guk dena euskaraz abesten dugu. Taldearen sorrerako helburuetako bat horixe izan zen, garai hartako testuinguruan euskaraz abestea, eta horri eusten diogu gaur egun ere. Abestietako bat nik neuk euskaratutakoa da gainera: *Ibai sakon, mendi altu*. Phil Spector da abestiaren egilea, baina Tina Turnerrek egin zuen ezagun. Abesti bonba bat da. Expresion Sonorarekin ere jotzen genuen abesti hau. Koska sortu genuenean euskaratu genituen abesti batzuk eta orduan hasi ginen euskaraz abesten, eta abesti hau ere garai hartakoa da. Abesti hau neuk kantatzeko esaten zidaten taldekideek, baina nik defendatzen dut talde bakoitzak daukala ahots bat eta ez dela ona izaten ahots hori aldatzen ibiltzea, baina insistitu zuten eta konbentzitu ninduten, beraz, abesti hori neuk kantatzen dut. Gainerako abesti gehienak Luis Llavorik egindakoak dira.

♦ **Taldearen helburuen artean Saharako emakumeen aldeko aldarrikapena egitea ere baduzuela irakurri dugu.**

Bai, ni taldera iritsi nintzenerako gauza batzuk erabakita zituzten eta hau zen horietako bat. 2006an Saharako emakumeen alde egin nahian diska bat kaleratu zuten, *Saemel* izenekoa (Saharako Emakumeekin Elkartasuna) eta diskoarekin lortu zuten dirua

haiei eman zieten.

◆ **Nola ikusten duzu musikagintza-
ren sektorea?**

Ni oso eszeptikoa naiz, baina ez pandemiarengatik, guzti hau hasi aurretik ere bai. Jende askok apustua egin du kulturatik eta musikatik bizimodu ateratzeko, baina honek behin ere ez du dirurik eman. Agian hau esatea gogorregia da, baina musikagintzan lau katu irteten dira aurrera, eta gainera oso epe laburrean mantentzen dira hor goian. Pena bat da, baina nik oso zaila ikusten dut egoera. Momentu honetan gainera badaude baliabideak. Batetik daude baliabide intelektuak, hau da, badago grabatzen dakien jendea, estudioak daude, tekniko oso onak, musikari ikasiak, kantu egileak, sortzaileak... Denetik dago, baina, hala ere, oso zaila da aurrera egitea, merkatua delako dagoena. Esaterako, musikari euskaldun batek euskaraz bakarrik kantatuta noraino iristeko aukera dauka? Eta Euskal Herrian zenbatentzako lekua dago? Eta kontsumitzaileak zenbat ordaintzeko prest daude?... Orain musika gehiena streaming bidez kontsumitzen da eta hortik lortzen den dirua gutxi da. Kontzertuetara joatea gustatzen zaion jendea badago, baina esaten dute gutxiengo delako. Alde horretatik optimista izan nahi nuke eta ez dut etsi nahi, eta pentsatzen dut momenturen batean jendeari sartuko zaiola musika zuzenean entzuteko gogoia berriz ere. Hori sinetsita sortu genuen Aterri taldea, formato txikian, tabernetan-eta,

“Pentsatzen dut momenturen batean jendeari sartuko zaiola berriz ere musika zuzenean entzuteko gogoia”

joteko, baina tabernekin ere ez daukate ekitaldiak antolatzen dirurik. Tabernariak musikariei ordaindu ahal izateko gutxieneko diru-sarrera bat izan behar dute, eta egoera ez dago erraza. Erakundeei dirua eskatzea kulturarako oso ondo ikusten dut, baina gizartea ez dago plan horretan. Ez dut pesimista izan nahi, horrek egoera asumitzera behartzen gaituelako eta ez dut hori nahi, baina egoera zaila da.

◆ **Urte pila bat daramatzazu oholztan, baina sekula ez da zure ofizioa izan; zaletasuna izan da beti.**

16 urterekin hasi nintzen eta 67 ditut, baina musika niretzat zaletasuna da. Denbora asko eskaintzen diot, baina ez da inoiz nire ogibidea izan. Expresion Sonorak irabazten zuen diru gutzia bere funtzionamenduan gastatzen zuen: instrumentuak ordaintzen edo kontzertua ematen genuen herrian bazkaltzen. Irabazirik ez zen geratzen. Koskak ere diskoekin ez zuen irabazirik ematen, baina berbenetan ateratzen zuen diru apur bat. Kide guztiok beste lanbide batzuk genituen, eta Koskak diru osagarri bat ematen zigun, dena beltzean. Orokorrean ez dut dirurik irabazi musikatik. Guk ez dugu diruagatik jotzen, guk gozatu egiten dugu oholztan, gozatu egiten dugu abestiak egiten, jendearekin hartu-emanen... horretarako ematen digu bizipoza. Zilegia iruditzen zait hala ere beste batzuen apustua, eta poztuko nintzateke lortuko balute musikatik bizitzea.

► **GABI AGIRREGOMEZKORTA** ELANER'S TALDEKO KIDEA

Dozena erdi bat talderekin lotzen dugu Gabi Agirregomezkorta, baina gaur Elaner's taldearekin ariko da Herriko Antzokian, Koskaren garaitik lagun eta taldekide dituen Jokin Zubillaga eta Oscar Gonzalezekin batera.

- AINARA ARGOITIA -

“Rock talde mitikoen kantu ezagunak joko ditugu gaur Herriko Antzokian”

◆ **Kultur zale gutxi izango dira Elgoibarren ezagutzen ez zaituztenak. Ibilbide luzea egin duzu musikagintzan eta talde berri batekin zatoz orain: Elaner's. Nortzuk osatzen duzue eta zerk eraman zaituzte batzera?**



Jokin Zubillaga, Gabi Agirregomezkorta eta Oscar Gonzalez.

Jokin Zubillagak, Oscar Gonzalezek eta hirurok osatzen dugu taldea. Jokin eta Oscar Koska taldearen garaitik ditut lagun. Erronomia giroko taldea zen Koska, baina erronomia talde berezia zen gurea, rocka egiten genuelako gehienbat. Basque

'Arteak ireki' jaialdian Gabi eta Alfonso A2an bikote moduan.

Country taldea sortu genuen gero, eta lau bat urtean mantendu genuen talde hura. Country musika jotzen genuen. Talde hori laga eta Expresion Sonorekin hasi nintzen ni gero, eta geroztikoak dira Alfonso Guillorekin hasitako A2an eta Aterri proiektuak.

◆ **Zer esan nahi du Elaner's-ek? Zein motatako musika egiten duzue?**

Sinplea da azalpena. Jardun ginen gure inguruan eztabaidan taldeari zer izen jarri erabakitzen, baina beti tratatzen ginen horretan, eta azkenean, gure bizileku diren herrien izenak erabiltzea proposatu nien taldekideei. 'Zer izen zatar jarri genion?' esan izan dugu batzuetan, baina hori da gure izena, eta listo. Beste azalpenen bat esperoko zenuen beharbada, baina Elgoibar, Antzuola eta Ermua hitzetatik dator Elaner's izena. Musikak bizi gaitu eta geuri gustatzen zaizkigun kantuak jotzen ditugu Elaner's-en emanaldietan. Rock klasikoko kantuak. Bryan Adams, Dire Straits, Joe Cocker, John Cougar, Steave Miller Band, John Mayall, The Knack... horien eta beste rock talde mitiko batzuen kantu eza-gunak jotzen ditugu eta ikaragarri gozatzen dugu. Helburu horrekin batu ginen talde honetan: geuk gozatzeko, eta ahal dela, beste batzuei gozarazteko. Gu geu nahikoa urrun gaude gaur tabernetan entzuten den musikatik. Ez gaitu asetzen entzuten dugunak. Musika elektronikoa erabili ere ez dugu egiten. Gu rock zale amorratuak izan gara beti, klasikoak eta hori da emateko duguna.

◆ **Ibilbide luzea egin duzu musikagintzan. Zer da zuretzat musika?**

17 urterekin hasi nintzen Alfonso Guillorekin Expresion Sonoran eta orain 68 urte dauzkatz, baina musikak jarraitzen du lehen-tasunezko zerbait izaten nire bizitzan. Musika gustuko duenak beti topatzen du zer egin, zer sortu. Country musika jotzen hasi ginen ere hortara jarri behar izan nintzen. Gustatzen zitzaidan country-a, baina ikasi egin behar izan nituen eskalaz eta abarrak. Akordatzen naiz gure ume sasoiaren futbolearen ibiltzen zirela kua-drilla askotan, baina gurean beti genuela musika hizpide. Alfonso Guillo, Jose Luis Oñate, eta ni beti genbiltzan Rolling Stones eta halakoak entzuten. Ni neu mendizalea ere banaiz, eta perretxiko zale amorratua ere bai, baina musikak beste ez nau ezerk betezen. Lan, hala ere, tailer munduan egin izan dut beti.

◆ **Herriko Antzokiko ohol-tza sarri zapaldu-takoa zara. Kontzertu hau, baina, garai berezian dator, kultur emanaldiak nabarmen urritu diren garaian. Zer sentitzen duzu?**

Oso pozik nago Herriko Antzokian jotzeko aukera eman digutelako. Sanbartolomeetarako zegoen iragarrita berez kontzertua, baina orduan ezin izan genuen jo eta Udalak eutsi egin dio programazioari, nahiz ere oraindik... batek jakin! Neurri murriztaileagoak etor daitezkeela iradoki dute eta hasita gaude denok ere etxeldia usaintzen. Baina ia ba, ia, jotzeko aukerarik izaten dugun, publiko mugatu baten aurrean bada ere. Iruditzen zait kultur egarriz gaudela denok ere, eta guk daukagun dena emango dugu kontzertura datozenek goza dezaten.

◆ **Elaner's-en ez ezik Aterri proiektuan ere bazabiltza orain.**



Nola moldatzen zara biak uztartzeko? Non entseatzeko duzue?

Ondo moldatzen gara. Gustukoa dugu eta hor ez dago sekula arazorik. Udalak herriko musikarientzako zabaldu zituen lokalean entseatzeko dugu, eta oso gustura gaude. Guk beste sei talderekin partekatzen dugu gure lokala, tartean Jon Gurrutxagarekin, Mikel Cornejorekin eta 6Nemen9koekin, esaterako. [Guztira, bost lokal daude] Egia esan abantaila handia da halako espazio bat izatea, lehen garajeetan-eta ibiltzen ginelako, alokairua ordainduta. Gainera, herriko musikarien artean harremanak sendotzeko bidea ere ematen du halako espazio batek, eta proiektu berriei ere zabaltzen die atea. Elgoibar, musikalki, osasuntsu dago. Jende asko dabil musikagintzan eta horrek izugarri poztzen nau. Gazteentzat, eta herri osoarentzat oro har, oso garrantzitsua da halako espazioak izatea, sortzeko. EME Elgoibarko Musikarien Elkarte ere badaukagu, eta halakoak beti dira lagungarri. Guk geure kasa ikasi genuen dakiguna, baina oraingo gazteak oso jantzita datoz. Gu han ibiltzen ginen diskoari jira eta buelta, doinu bat atera ahal izateko, eta gaur dena dute ordena-gailuetan, behar bezala azalduta. Alde handia dago guretik hauenera. Askok aurreratu da eta oso proiektu interesgarriak daukagu egia esan.

◆ **Zeuk esan duzu musika gustuko duena ez dela aspertzeko. Elaner's-kin zerbait grabatzea ba al dago zure buruan?**

Ez dugu ezer hitz egin. Daukagun egoera honetan ezin da aurreikuspen handirik egin. Aterriekin bageneuzkan kontzertu batzuk lotuta ere, baina denak bertan behera gelditu dira. Pandemia hasi zenean pentsatzen genuen uda partean izango genuela terrazetan-eta kontzertu txikiren batzuk emateko aukera, baina dena gelditu da eta jakin ez noiz arte! Zer gerta zain gaude denok. Ia ba datorren urteko udaberri alderako hasten diren gauzak itxuratzen eta hasten den egoera hobetzen. Elaner's-ekin ere eman genituen kontzerturen batzuk pandemia iritsi aurretik, Elgetan-eta, baina horixe. Musika jotzen beti gozatzen dugu guk, baina publiko aurrean jotzea berezia da. Oraindik urduri jartzen gaitu oholtzara igotzeak. Hori ez da sekula aldatuko, eta hobeto hala izanda gainera.

Pandemiak gogorren jo duen sektoreetako bat da kulturarena. Zer duzu esateko?

Ez dakit zer esan, egia esan. Osasuna lehenetsi behar den iritzikoa naiz, baina zaila zait ezer esatea.



1977

Sanbartolomeetan egindako argazkia da honako hau, Txiki Egunez egindakoa, eta Artetxe-Maala kuadrillakoak dira argazkikoak. Juan Luis Mugertzaren argazki-artxibokoa da, eta esan beharrik ez dago jai-usaina dariola argazkiari eta eskertzen direla halakoak, are gehiago orain, koronabirusak ilundutako garaioan. Gogora ditzagun nortzuk diren argazkian ageri diren gizonak.

Goian: Imanol Trueba (†), Juan Ignacio Agirregomezkorta, Mikel Gabilondo, Vicente Santos, Agustin Prado, Ramon Atrio, Angel Javier Odriozola (†) eta Juan Ignacio Iriondo. **Erdian:** Jose Luis Maguregi (txapel beltza jantzia duena), Jesus Irazabal (Txapel txuriduna), Pedro Arosa eta Juan Luis Mugertza. **Behean:** Jose Ramon Salegi (†), Agustin Sanchez eta Luis Dacosta.



Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

e-posta:
barren@elgoibarkoizarra.eus
 Barreneko bulegora ekarri:
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.





► LUIS CERRON PSIKOPEDAGOGOA

Irakaslea eta psikopedagogo da Luis Cerron (Elgoibar, 1960) eta *Encuentra el camino. Una historia de búsqueda y felicidad* liburua argitaratu berri du. Bere bigarren liburua du. *2008an, Friego, luego existo. Reflexiones desde la cocina* liburua argitaratu zuelako, filosofia ikasketak eta sukaldeko lanak uztartzen ari zela sortutako gogoetekin. Gaur, egun, aholkulari eta bidelagun lanetan ari da Cerron garapen eta hazte prozesuetan.

“Zoriontasuna kanpoko lorpenetan oinarritzea oso mugatua da”

◆ ‘Encuentra el camino. Una historia de búsqueda y felicidad’ liburua idatzi berri duzu. Zeri buruzkoa da liburua?

Orain dela lau bat urte hausnarketa talde bat sortu genuen, emakume batzuen eskaerari erantzunez. Bertan, beraien kezka, ardura, beldur, frustrazio eta antsietateei arrazoi bat eta irtenbide bat aurkitu nahian jarduten ginen lantaldean asteroko dinamikan. Hasieran, erabat zorabiatuak erreakzionatzen zuten, beraien eskema eta arrazonamenduekin topo egiten zuten planteamentuak aurrez aurre jartzen nizkienean. Baina etengabeko jakinminak, barruko oreka lortu eta norberaren egia

aurkitzeko nahiak bultzaturik, tinko eta konpromisoz eutsi zioten elkartzeari –eutsi genion– gaur egun arte.

Orain emakume horiek ez dira hausnarketetan entzuten dituzten gauza guztiekin zorabiatzen eta izutzen. Orain, ulertu eta onartu egiten dute, eta bizi dutena

“Zoriontasunaren bilaketan izaten diren oztopoak nondik datozen azaltzen dut liburuan”

partekatu. Eta bide horretan aurrera jarraitzeko barruko nahiak ere ez zaizkie gutxitu, nahiz eta pandemia garai honetan gure bilerak murriztu egin behar izan ditugun.

Bilera bakoitzerako lagungarri gisa dokumentu batzuk prestatzen nizkien eta esaldi motzetan laburtzen nien bilera dokumentu mezuaren ardatza. Gero bakoitzak bere erabilera propioarako gordetzen zituen dokumentu horiek. Hain ugaria eta aberasgarria izatera iritsi zen material hura eze, beste batzuentzat ere lagungarria izan zitekeelakoan, dena bildu eta guztiarekin,

eleberri gidoi eta forma emanaz, liburu sorta nuen, eskuartean duzuen hau.

◆ Zer jaso nahi izan duzu bertan?

Liburu honetan, fikziozko historia baten bitartez, pertsonak bere zorientasuna bilatu nahian aurkitzen dituen oztopoak nondik datozen azaleratzen da, oztopo hoiaren aurrean gure jarrera zein izan daitekeen adieraziz.

◆ Eta hitz gutxitan, zerk oztopatzen digu zoriontsu izaten?

Ume-umetatik ezarri dizkiguten (eta guk sinetsi ditugun) pentsamentu, uste eta sinismen automatizatuak. Horietan oinarrituz, inkontzienteki "personaia" bat sortzen dugu, gure benetako izatearekin zerikusirik ez duena. "Personaia" honen eraginez gaizki senti arazten gaituzten funtzionamendu desorekatu eta ulertezinak izaten ditugu. "Personaia" horrek bilatzen duen zorientasuna kanpoko "lorpenetan" oinarritzen da. Eta hori oso mugatua eta asezinakoa da. Berri ona da, garapen eta hazte prozesu baten barrera hori ulertzen dugunean, benetan nor garen hobeto ikus dezakegula eta funtzionamendu desorekatuak poliki-poliki desagertzen joaten direla.

◆ Nori zuzendutako liburua da?

Lantaldeak berak eta urte gutzi hauetan egindako lan horrek inspiratuta liburuko protagonistak emakumeak dira. Eta pentsa daiteke beraiei zuzendutako liburu bat dela. Baina esango nuke mundu guztiarentzat dela lagungarria eta denoiegi digula on. Izan ere, pertsona guztiok dugu hori amankomunean: eguneroko bizitzako borrokan harri askorekin egiten dugu topo zoriontsu izateko bidean. Traba zaizkigu harri horiek. Eta oztopo horiek detektatu eta gainditzean dago barruko bakearen eta zorientasunaren bidean aurrera egiteko klabea. Hauxe da liburuan agertzen dena, hain zuzen ere.

◆ La denok gure barnean ditugun zauriekin zer egin jakiteko pista edo argibideak eskaintzen ditu liburua. Hala irakurri dizugu. Adibidez?

Liburu honekin zera erakutsi nahi izan dut: 1) Nola sortzen diren zauriak gure

bizitzako lehenengo urteetan, 2) Zer mekanismo sortzen ditugun inkontzienteki zauri horiek sortarazitako barruko ondorezi "ondo" aurre egiteko, 3) Zer nolako funtzionamendua dugun mekanismo horien ondorioz eta 4) Zein den zauri horiek sendatzeko bidea, zorientsuago bizi ahal izateko.

◆ Autobiografiatik ba al du liburua?

Baietz esan daitezke. Bertan, pertsonaiaetan nabari daitezkeen prozesua, nire eta jende askoren esperientzia pertsonalean oinarritua baitago. Liburuko protagonistak aste gutxi batzutan egiten duen prozesua, adibidez, nik neuk urte askotan zehar egin dut. Eta horrela izaten da normalean. Liburuan, denbora laburrean gertatzen da aipatzen ari naizen prozesu hori. Horrela, antzerako egoeretan dauken pertsonen ikuspegi orokor bat izanik, errazago barnera ditzakete mezuak. Prozesua "konprimituta" azaltzen da nolabait, errazago ikusteko. Gero mezu horiek norberak bere bizitzan gauzatu behar ditu, bakoitzak bere askatze prozesua eraikiz, bere errimora. Nire lanbidearekin guztiz lotuta dago liburua.

◆ Zure liburuetan hizkuntza berri bat erabiltzen duzula diozu.

Liburua gaztelaniaz idatzi dut, berez, ez zaidalako batera erraza oraindik gai hauek euskaraz lantzea. Pertsona batzuekin hitz egiten dut gai hauetaz euskaraz, pribatuan, baina orokorrean, oraingoaz, gaztelera idatzita jende gehiagori lagundu diezaiokedala iruditzen zait eta idazteko orduan neurtzat ere lagungarriagoa zait. Baina, bai, beste hizkuntza bat erabiltzen dudala esaten dut. Berria baino gehiago, guztiz barneratua dudana "genero gabeko" hizkuntza, bai. Hori esaten dudanean esan nahi dut hizkuntza era inklusiboan erabiltzen dudala, irakurtzerakoan inor ez dadin "ikusezina" sentitu. Era naturalean jartzen saiatzen naiz, hein batean, euskarak berak, bere baitan duen "genero-eza" baliatuta.

◆ Non eskuratu daitezke liburua?

Pitxintxun eskuratu dezakezue liburua eta momentuan Amazonen ere badago salgai.

'Moko zorrotza' antzezlan, gaur zortzi, Elgoibarren




Txalo Produzioak konpainiak *Moko zorrotza* antzezlan emango du gaur zortzi, azaroaren 13an, Elgoibarko Herriko Antzokian. Mario Hernandezek zuzendutako obra da, urtebete baino gehiago daruma oholtzetan eta Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola aktore goieritarrek parte hartzen dute antzezlanean. Bizitza ulertu eta bizitzari aurre egiteko bi modu ezberdin dituzten Juan eta Lauraren azalean jardungo dira Plazaola eta Garmendia [*Losers* antzokiz antzoki dabilen antzezlanean ere elkarrekin ari dira bi goieritarrok]. Laura eta Juan ikaskide izan ziren institutuan, eta ustekabean egingo dute topo. Amets eta algarak, barre eta negarrak, hutsune eta begiratuak... denetarik du obrak, baina hasierako algarak hausnarketa-gai bihurtuko dira.

Koronabirusaren pandemia dela eta, Herriko Antzokiko emanaldien ordutegiak aurreratu egin behar izan dituzte. 19:00etan hasiko da antzezlan beraz, eta sarrerak Kutxabank bidez erosi daitezke aurrez, edo bestela bihar, zapatuan, Herriko Antzokiko lehiatilan 19:15etik 21:45ak bitartean edo egunean bertan.

Are-makillia baiño okerragua izan: Sororako areak duen makila okerra da. **Ikus Akerran adarrak baiño okerragua izan.**

Aita Agirre Kulturgunean jaso beharko dira Euskaraldiko txapak azaroaren 9tik 19ra bitartean

Elgoibarko Euskaraldia lantaldeak azaroaren 9tik 19ra bitartean banatuko ditu Euskaraldiko txapak Aita Agirre kulturgunean. Goizez, Elgoibarko Izarraren bulegoan jaso beharko dira txapak (9:00-14:00), eta arratsaldez, mahai bat jarriko dute beheko solairuan, eraikineko sarreran (18:00-20:00). Nahi dutenek, ordu-tegi horren barruan Euskaraldian izena emateko aukera ere izango dute. Era berean, Euskaraldiko musukoak eta banderatuak ere salduko dituzte 5 euroan.



Hil aurretik norberak egin nahi duenari buruz idazteko arbela jarri dute Aita Agirre kulturgunean



Heriotzari bizia ematen jardunaldia antolatu dute *Dandovidalamuerte.org* plataformaren barruan dauden hainbat elkarteek aste honetan, tartean Almaur eta Euskadi Lagunkoia elkarteek (Bihar dute amaitzekoa). Modu sinbolikoan bada ere, Elgoibarren ere badago ekimen horretan parte hartzeko aukera, *Hil aurretik nahi dut...* ekimenaren bidez. Mural bat jarri dute Aita Agirre kulturguneko sarreran, eta bertan, herritarrek beren bizitzei buruz hausnartzeko aukera dute. Ekimen hau New Orleansgo [AEB] etxe abandonatu batean sortu zuen Candy Chang artista urbanoak. Lagun maite bat hil zitzaionean heriotzari buruzko sentipenak adierazteko espazio bat sortu zuen hirian. Geroztik, 5.000 mural baino gehiago sortu dituzte, 78 herrialdetan. Jardunaldi honek hiru helburu ditu: heriotzari buruz hitz egitea, topagune izatea hiltzeko prozesuaren alderdi ezberdinak lantzen dituzten elkarre eta norbanakoentzat eta urte osora zabaltzea aste honetan landu diren gogoetak. Antolatu dituzten jarduerak *Dandolavidalamuertek* Youtuben daukan kanalean jarrai daitezke. Gaur, esaterako, *Historias de despedida* hitzaldia eskainiko dute 19:00etatik aurrera, eta bihar Death cafe saioa egingo dute, 17:00etan hasita.

Ipuin lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak

Haur eta gazteen artean irakurzaletasuna sustatzeko asmoz, ipuin lehiaketa antolatu du aurten ere Mendaroko Udalak. Hiru maila banatu dituzte: A maila (LH1, LH2, LH3, LH4ko ikasleak), B maila (LH5, LH6, DBH1, DBH2ko ikasleak) eta C maila (DBH3 eta DBH4ko ikasleak). Ikasturte maila bakoitzean e-book bat zozketatuko da sari gisa, eta parte-hartzaile guztiek jasoko dute orogarri bat. A mailakoek ipuin bat irakurri eta ilustratu egin beharko dute; B mailan, berriz, ilustrazio bat ipuin bilakatu beharko dute, eta C mailako partaideek ematen zaien gaian oinarritutako komiki edo bineta sortu behar dute. Lanak 2020ko abenduaren 18a baino lehen aurkeztu behar dira Mendaroko udaletxean goitizentz batekin. Posta arruntez, emailaz edo eskura entregatu daitezke lanak, eta esan dute ez dutela epez kanpo aurkeztutako lanik onartuko.

Udal Kirol Patronatuko instalazioen erreserba online ere egin ahal izango da

Elgoibarko Udalaren web orrialdean bi banner ipini dituzte Udal Kirol Patronatutako instalazioak on-line erreserbatu ahal izateko. Patronatuko arduradunek azaldu dute erabiltzaileek "erraz" eta "azkar" egin ahal izango dutela erreserba. Koronabirusaren pandemiak eragindako osasun-krisi honen testuinguruan, erabiltzaileekin dituzten harremanak erraztea eta elgoibartar guztiei eskaintzen zaien zerbitzua hobetzea da Patronatuaren helburua. Ildo beretik, Udal Kirol Patronatuak 12 puntuko arautegi bat kaleratu du, eta erabilera araudi hori eta gainerako segurtasun neurriak errespetatzeko eskatu die herritarrei. Araudi honez gain, ohiko neurriak bete beharko direla gogorarazi dute: eskuak maiz garbitu, segurtasun distantzia mantendu eta maskara uneoro erabili beharko da, jarduera fisikoa egiterakoan izan ezik. Hauxe da araudia:



1. Erreserba egiteko plataforma Patronatuko bazkideek soilik erabil dezakete. Bazkide ez direnek harreran edo telefonoz egin dezakete erreserba.
2. Igerilekura, Mintxetako muskulazio eta kardio geletara, rokodromora, squasheara, frontoi txikira, igerilekuetara eta Olaizaga kiroldegiko muskulazio gelara joateko, aurrez egin behar da erreserba.
3. Erreserba on-line egin daiteke www.elgoibar.eus helbidean.
4. Gehienez bi egun lehenago egin daiteke erreserba.
5. On line bidez, aukeratutako erabilera ordua baino 2 ordu lehenago arte egin daiteke erreserba. Telefonoz eta Harreran, tokia egonez gero, erabilera ordua arte ere egin daiteke erreserba.
6. Erreserbatutako ordua ez bada erabiltzen eta aurrez gutxienez 2 ordu lehenago ez bada baliogabetu, hurrengo 15 egunetan ezingo da beste erreserbarik egin.
7. Erabiltzaileek e-posta helbidea eman behar dute erreserba baieztapena jasotzeko. Sarrerako ontzian ez bada jasotzen, spamean begiratzeko eskatu dute.
8. Erreserbak baztertzeke, jasoko duten baieztapen e-postatik egin daiteke.
9. Olaizaga kiroldegian edo Mintxetan sartzeko, harreran egiaztatu beharko da erreserba. Harrerako langileek adieraziko diete ze aldagela erabili dezaketen, dagokien instalazioan noiz sar daitezkeen, e.a.
10. Igerilekuko, squasheko eta frontoi txikiko erabilerak ordu batekoak izango dira eta muskulazio gelakoak, kardio gelakoa eta rokodromokoa ordu bat eta 15 minutukoa. Beste 15 minutu izango dira aldagela erabiltzeko.
11. Edukierak: igerileku handia (12 lagun. Kale bakoitzean 3 lagun), igerileku txikia (8 lagun edo bi familia), rokodromoa eta Olaizagako muskulazio gela (6 laguna), squash eta frontoia (2 lagun), Mintxetako muskulazio gela (10 lagun) eta Mintxetako kardio gela (10 lagun).
12. Aldagelak erabili ahal izango dira bakoitzari dagokion edukiera errespetatuz. Atean adierazita egongo da aldagelaren edukiera. Aforoa beteta balego, itxaron egin beharko da aldagela erabiltzeko.

Mendira joateko bada, alboko herrira ezin dela autoz joan zehaztu du Ertzaintzak

Eusko Jaurlaritzak koronabirusaren pandemiari aurre egiteko neurri murriztaile berriak indarrean jarri zituenetik astebete pasa den arren, herritarrek dituzten hainbat zalantza argitzeko irizpideak kaleratu dituzte Ertzaintzak eta Jaurlaritzak. Alabaina, ez dirudi herritarrek neurri eta arau guztiak argi dituztenik; mendira joateko garaian, esate baterako. Euskal Mendizale Federazioak (EMF) gai honen inguruko argibide-eskaera egin zion Ertzaintzari, eta hona jaso zuen erantzuna: "Mendian kirola egin daiteke, beti ere, gure bitzitoki den udalerrian edo inguruko udalerrietan kokatutako mendietatik burutzen bada, eta horiek gure ondoko udalerrri batean badaude, oinez hurbildu beharko gara. Ez dago onartua ondoko udalerrietara kotxez joatea ondoren mendira igotzeko". Zer hartzen da udalerrri mugakidetzat? Bizileku den udalerritik errepidez zuzenean sartzten den herria; tartean beste udalerrri bat pasa behar bada, ez da mugakidea. Mendiz mugakidea izan arren, errepidez ez bada, ez da hartzen mugakidetzat. Era berean, joan den asteburuan atzeman dituzten "gehiegikeriak" jarraitzen badu, ez dute baztertzen zigorrak ezartzen hastea.

Uztargi xake txapelketa atzeratu dute eta xake eskolak eten

Otarre xake taldeak bigarren urtez antolatatu du xake azkarreko lehiaketa, Uztargi kafetegiarekin elkarlanean. Urriaren 1ean hasi zen txapelketa eta bi aste behin jokatzeko dituzte partidak, baina jokatzeko falta diren txandak atzeratzea erabaki dute antolatzaileek, Jaurlaritzak koronabirusaren pandemiari aurre egiteko indarrean jarri dituen neurriengatik. Falta diren partidak jokatzeko modua dagoenean jokatuko dituztela azaldu dute. Era berean, Otarrekin antolatzen dituen xake eskolak aldi baterako etetea erabaki dute. Berriro abian jartzen dituztenean emango dute horren berri.

LANA.....

Eskaintzak

Langile euskalduna behar dugu hilean bi aste-buruz, goizetan, adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko.

☎ 615 006 733

Gurekin bizitzeko etxeko langilea behar dugu, adinekoak zaintzeko. Euskalduna. Laguntza izango luke. ☎ 615 006 733

9 urte dituen ume bati gitarra klaseak emango dizkion pertsona bat behar da.

☎ 615 750 171 (whatsapez, mesedez)

Zubacor lantegian CNC tortuko langile bat behar dugu. FANUC kontrolean esperientzia baloratuko da. Behin betiko lan-kontratua. Harremanetarako: zubacor@zubacor.com
☎ 943 740 844

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Erreferentziak ditut.

☎ 631 439 959

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Arduratsua naiz eta esperientzia daukat. Etxeko langile moduan edo asteburuetan egingo nuke lan. Arropa lisatu, sukaldatu, botikak eman... denerako prest.

☎ 632 355 103

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz eta titulua daukat.

☎ 626 490 986

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo asteburuetan. ☎ 632 108 280

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Garbiketa lanak ere egiten ditut.

☎ 688 735 551

Adinekoak zaintzeko prest, etxeko langile moduan.

☎ 643 977 786

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulua eta esperientzia ditut. Elgoibarren bizi naiz.

☎ 660 511 781/943 742 330 (Elena)

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Garbiketa lanak ere egiten ditut.

☎ 602 123 942

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Ospitalean zaintza lanak egiteko ere bai.

☎ 632 421 912

Edozein lan egiteko prest nago. Agiriak ditut.

☎ 631 895 039

Adinekoak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia daukat.

☎ 643 278 344

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest. Baita erakuntzan edo basoko mutil lanetan jarduteko ere. Arduratsua naiz.

☎ 662 415 709

Adinekoak zaintzeko, zerbitzari moduan jarduteko edo beste edozein lan egiteko prest nago.

☎ 610 668 183

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Baita ospitalean dauden gaixoeekin gauetan egoteko ere. Esperientzia daukat.

☎ 641 359 024

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Garbiketa lanak ere egiten ditut eta baita ospitalean dauden gaixoeekin egon ere. Berehala lanean has-teko prest.

☎ 602 407 338

ETXEBIZITZAK.....

Etxe txikia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Premiazkoa.

☎ 641 359 024

2 logelako etxebizitza alokagai, Deban. Azarotik ekaina erdialdera bitartean.

☎ 669 339 529

GARAJEAK.....

Garagea salgai Mendaron, Azpilgoeta auzoan. Handia da, argitsua, ur-sarrerarekin eta ate automatikoa. Kalera ematen du eta sarbide erosoak.

☎ 695 730 442

Garaje itxia alokatzen dut Lekuederren, 4. solairuan.

☎ 660 042 159 (arratsaldez deitu, Beatriz).

 <p>administradores Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas Euzkoaldea Euzko Administratzaileen Kontsekoa</p> <p>ROSA M^a PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazio-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gure komunitateko gastuak ez dira partaidetza-kuotaren arabera ordaintzen, eta denok kuota bera ordaintzen dugu, duela urte batzuk lortutako akordio baten ondorioz. Duela gutxi, etxebizitza baten titularrak aldatu dira, eta jabe berriak esan du ez dituela ordainduko gastuak hartutako akordio haren arabera, berak ez zekiela ezer hari buruz. Jabeak dio eskrituran adierazitakora mugatuko dela. Egoera hau nola konpon dezakegun jakin nahi nuke.</p> <p>Gastu orokorrak banatzeko sistema estatutuen bidez alda daiteke. Estatutuetan, beste partaidetza-araubide bat ezar daiteke, edo, bestela, zenbait salbuespen jaso daitezke eraikineko elementu pribatibo, pisu edo lokal jakin batzuen alde. Hori dela eta, komunitateak bete egin beharko du komunitateko estatutuetan gastuak banatzeko ezarritako sistema, komunitatearen erabakiek sistema hori aldatzen ez duten bitartean, betiere, legeak ezarritako betekizunei eta gehiengoei jarraituz. Higiezinaren trafiko juridikoaren segurtasunak eskatzen du jabetza eskuratu dutenak behar bezala babestuta egotea Erregistroko idazkунetan jarri duten konfiantzagatik. Beraz, kontuan hartu behar da erregistro-fede publikoaren printzipioa. Hortik ondorioztatzen da erregistro idazpenen egiazkotasuna, horien existentzia, hedadura eta titulartasuna. Horregatik, hirugarren eskuratzailer onustedunak bertan adierazitakoaren babespean geratzen dira, erregistro-idazkунetan. Beraz, eskuratzearan mantendu egingo dira, eta ezin izango zaie haien kalterako izan, beren eskubideak mugatzen dituzten eta behar bezala inskribatuta ez dauden alderdi guztiak.</p> <p>Ondorioa. Itun hori aurreko jabeari bakarrik eska dakioko. Beraz, ezin zaio jabe berriari luzatu, itun edo akordio hori ez badago behar bezala inskribatuta Jabetza Erregistroan.</p> <p>ASESORIA GO/R AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	--



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Luma**, etxeko txapelduna! 5 muxu potolo, familiako partez.



Zorionak, guapa! 9 urte dagoeneko! Zeinen azkar pasatzen den denbora! Muxu potolo bat familiako partez.



Zorionak, mutil handi! Bihar 7 urte! Ondo-ondo pasa! Ea noiz ospatu ahal dugun denok batera. Muxu potolo bat familiako guztien partez.



Zorionak, **Teresa Ines**, gure poxpoliña! Ilargiraino eta buelta maite zaitugu.



Zorionak, **bikote**! Ondo pasa zuen 4. urtebetetze egunean. Muxu handi bat familiako eta lagun partez.

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrek agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€



**Mila esker
zuen konfiantzagatik!**

Sherpa edredoi-bilduma berria!

Oso leunak.

Alde bat mikrolinazkoa da,
eta bestea borregitoxkoa.

Tamaina guztietan.



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

Jarri ezazu zure publizitatea BARRENe astekarian
edo www.barren.eus webgunean

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

943 743 704

688 769 657



BARREN

Alto Agíne Kulturunea, 3. 3. ezk.
20870 ELGOIBAR



zubacor

**CNC tornuko
langile bat behar dugu**

- FANUC kontrolean esperientzia baloratuko da.
- Behin betiko lan-kontratua.

Harremanetarako:

943 740 844

zubacor@zubacor.com

6 BARIXAKUA

16:30 Odol ateratzeak. Jubilatuen Biltokian. Zita hartzeko: 623 328 404.

19:00 Kontzertua: Oingoan bai! Elaner's eta Leok'k.

13 BARIXAKUA

10:30-14:00 Informazio mahaia: Gipuzkoako itxaropenaren telefonoaren zerbitzua. Kalebarren plazan.

19:00 Antzerkia: 'Moko zorrotza'. Txalo produkzioak taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

Zinea (Herriko Antzokian)


'Greenland:
El último refugio'

7 zapatua: 19:00
8 domeka: 19:00
9 astelehena: 19:00



'El arco mágico'

8 domeka: 16:30



'El drogas'

(Ongarri zinekluba)
12 eguena: 19:00



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutzak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-22:00			Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)	
6 BARIXAKUA	7 ZAPATUA	8 DOMEKA	9 ASTELEHENA	10 MARTITZENA	11 EGUAZTENA	12 EGUENA	13 BARIXAKUA
Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez *Arriola	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Arriola

* Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)
943 206 984

Urrian hildakoak

- **Mercedes Aizpiri Zubizarreta**
87 urte, urriak 1
- **Simon Uranga Etxeberria**
86 urte, urriak 8
- **Ciriaco Azkoaga Ubera**
73 urte, urriak 17
- **Felipe Rodriguez Torinos**
67 urte, urriak 3
- **Maria Luz Izagirre Arrillaga**
88 urte, urriak 11
- **Iñaki Agirre Errazkin**
63 urte, urriak 17
- **Rafael Segura Linero**
63 urte, urriak 7
- **Maria Rosa Garcia Cordoba**
90 urte, urriak 13
- **Agustina Zuazo Armolea**
94 urte, urriak 24
- **Maria Barrutia Mendikute**
99 urte, urriak 8
- **Martin Alberdi Arriola**
92 urte, urriak 14



III. URTEURRENA

Txomin Barrenetxea Urkiola

"Borrajen"

2017ko azaroaren 5ean hil zen, 78 urte zituela.

**Aitxitxa Txomin, zure indarra eta adorea
gogoan dugun bitartean, beti izango zara gure artean.**





III. URTEURRENA

Joxe Mari Irusta Larrañaga

1947/04/21 - 2017/10/27

Haren oroimenez III.urteurreneko meza izango da,
domekan, azaroaren 8an, 11:30ean,
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.





June
Laka
Morais,
6 urte,
Elgoibar

"Kalean jolasean"



Haritz
Zabala
Ostolaza,
9 urte,
Elgoibar

"Gozamena, aupa!!!"





PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
 cordonvilarchao@telefonica.net
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62

Jon Aranoa
 Guillermo Torres



Elgoibar
 Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
 Astelohaneetik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
 Larunbatak: 11:00 - 13:00

*Ispepeindgi zerbitzua daukagu.
 Deitu ordura hartzeko.*



MEKANOSA
 Errosario, 27
 Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
 ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA
 MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

BOSCH KGN39XW37
HOZKAILU KONBINATUA

- A++
- Txuria
- No Frost teknologia
- 366l
- 2,03 m x 60 cm

649 €

BLACK FRIDAY
 AURRERATU ZAITEZ!
11 MILAR



11 MILAR BIRE
 Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
 Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.



ikusgaitzak

Ezin dira euren familian hazi, eta harrera-familia baten beharra dute. Eta ikusten ez duguna existitzen ez denez, aurpegi eta begiak jartzea erabaki dugu.
Lagundu gaitzazu 60 harrera-familia aurkitzen.

gipuzkoa.eus
 Erakutsi dezagun Gipuzkoaren aurpeirik onena.

Gipuzkoako Foru Aldundia
 Diputazio Foral de Gipuzkoa




ETORKIZUNA
ORAIN
 Es futuro

► Gremioen gida

ARROZTEGIAK

BICENA, S.L.
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.bicena.eus
info@bicena.eus



Ulazia
ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P
943 740 547



iraolagoitia
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutx-gain industriagunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com

IMAR
ARROZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 beheak
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com



Aroztegia · Carpinteria

ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225
asimaaroztegia@gmail.com

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urzuzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
tienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

FONTANERÍA

Ibámar
ITURGINTZA

San Roke, 10-A, beheak B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

ONGI Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com

SANTANA

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheak
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

ERREFORMAK

ESTUDIOS ARRILLAGA

Erosario kalea, 15 beheak - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019
605 713 168

IGELTSERITZA

A. Garate

Era guztietako igeltsaritza lanak egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 beheak - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

► Igeltsaritza

- Pintura

ELEKTRIZITATEA

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Urzuzuno, 14 beheak
20670 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

LEIHOAK

LODOSO LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

► Leihoak

- Iturgintza
- Elektrizitatea

► Aroztegiak

- Erreformak